

ALBISTEA

“Zestoako udalbatza-aretoko bankuak gipuzkoarrok eta euskaldunok mendeetan zehar izan dugun komunitate-izaeraren eta gobernatzeko modu propioaren lekukotza dira”

Aldundiak egindako ikerketa- eta kontserbazio-lanei esker, balio historiko zein sinboliko handia duten bankuen historia eta ondare-balioaren ezagutza sakondu eta kontserbazioa bermatu da. Zestoakoak mota honetako bakarrak dira.

2026/09/03

Gipuzkoako diputatu nagusi Eider Mendozak Zestoako udaletxeko udalbatza-aretoan dagoen Batzar Nagusietako banku historikoaren inguruan Aldundiak egindako ikerketa eta kontserbazio-lanen emaitzak aurkeztu ditu gaur; Felix Urkola, Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako diputatuarekin; Zestoako alkate Mikel Arregirekin eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakari Xabier Ezeizabarrenarekin batera.

Zestoakoa balio historiko eta sinboliko handiko altzaria da, Gipuzkoan ezagutzen den mota honetako bakarra, eta lurraldearen antolaketa instituzionalaren eta Gipuzkoako Batzar Nagusien historiaren lekukotza zuzena eskaintzen du. Lanak, hain zuzen, diputatu nagusiak Gipuzkoako herrietara egindako bisita-errondaren barruan Zestoan jasotako eskaerari erantzuten dio. Hala, abiarazitako ikerketak ondorioztatu duenez, aretoaren perimetro osoa hartzen duten egurrezko bankuak XVIII. mendekoak lirateke, eta udaletxean historian zehar berariaz mantendu nahi izan dira hiru gizalditan. Ikerketak osatuta, Aldundiak kontserbazio eta dibulgazio lanak egingo ditu orain eta aurrean esku-hartze berezia egingo da bankuaren lehenetariko pintura-geruzetara iristeko eta antzinako polikromiatako baten zati bat agerian uzteko.

Diputatu nagusiak, bankuen balio historiko eta sinboliko sakona nabarmenduz, gogora ekarri du, hain zuzen, aurrean 150 urte betetzen direla euskal foruak abolitu zituztenetik, eta banku hauek “gipuzkoarrok eta euskaldunok mendeetan zehar izan dugun komunitate-izaera eta gobernatzeko modu propioaren lekukotza” ematen dutela. Izan ere, “lurralde osotik etorritako ordezkariak, maila eta jatorri ezberdinetakoak, parez pare eta berdintasunean esertzen ziren Zestoako banku hauek, Batzar Nagusietan. Hemen, Gipuzkoako herritarren giza duintasuna aitortzen zen: gipuzkoar guztiok berdina ginen eta berdina gara. Herriaren antolaketa eta bere burua gobernatzeko gaitasuna, beraz, berezko eskubide gisa ulertzen ziren”, Mendozak azaldu duenez. Ildo horretan, Mendozak adierazi du iraganeko ondare horrek gaur egungo Gipuzkoarekin ere baduela loturarik: “Oinarri horietatik abiatuta, gaur egun ere berdintasuna eta demokrazia oinarri dituen gure autogobernuaren eta gure erakundeen aldeko konpromisoa berritzen dugu. Orain dela hiruzpalau mende egiten zuten bezala, iritziak partekatuz eta norbere jarrerak defendatuz, baina guztion artean irtenbideak eta elkar ulertzea bilatuz”. “Banku hauek gure lurraldearen historiaren lekuko dira, baina baita ere etorkizunean izan nahi dugunaren oinarri”, erantsi du diputatu nagusiak.

Zestoako alkate Mikel Arregik, bere aldetik, diputatu nagusiari eskerrak eman dizkio eta azaldu du 2024an Zestoan egin zen Diputatuen Kontseiluaren aurretik egindako bileran, besteak beste, Zestoako batzar aretoko bankada historikoa zahar-berritzearen premia adierazi ziola, izan ere, “zantzu guztiak genituen Batzar Nagusiak egiten ziren Gipuzkoako herrietatik Zestoakoa zela banku historikoak kontserbatzen zituen bakarra”. “Geroztik, aipatu den bezala, gai hauetan adituak diren teknikariak buru belarri ibili dira gure areto honetan”. Halaber, “gipuzkoar eta euskaldun guztion ondarea den gure erakunde egituraren lekuko historiko hau Zestoako herrian izatea ohore bat” dela aitortu du eta “ondorengo belaunaldientzat ondo zaindu eta gorde beharrekoa ere badela”.

Xabier Ezeizabarrena, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariak ere ildo beretik, ondare balioaz harago, udalbatza-aretoko bankuak “euskal identitate baten lekukoa” direla adierazi du: “Hemen ikusten dugu Herri hau Gipuzkoan eraikitzen joan zena mendez mendeko eta bere borondatez, funtsezko ezaugarriak ondus: berdintzaletasuna eta askatasunez erabakitzea”. Hori horrela, “inportantea da gure historia ezagutzea eta haur eta gazteei transmititzea, ez garelako hutsetik hasten”, erantsi du.

Gipuzkoarren bilgune

Aldundiak 2025ean jarri zuen abian ikerketa- eta kontserbazio-proiektua bankuen historia zehazteko, haien datazioaren inguruan sakontzeko, ondare-balioa aztertzeko eta kontserbazio-baldintzak hobetzeko. Ikerketa egiteko, Aldundiak diziplina desberdinetako espezialistez osatutako lantaldea eratu du: historialari bat, artxiboko arduradun bat, bi arotz, kimikari bat eta bi kontserbatzaile.

Egitura egurrezko jesarleku polikromatuek osatzen dute eta aretoaren perimetro osoa hartzen du bankadak. Bizkaraldean Gipuzkoako hiribildu eta herri-elkarteen izenak daude idatzita: Zarautz, Andoain, Hondarribia, Urnieta, Antzuola, Irun, Elgeta, Deba, Azkoitia, Azpeitia, Donostia, Zestoa, Tolosa, Bergara, Oñati, Elgoibar, Oiartzun, Arrasate, Saiaz*, Hernani, Leintz errege bailara, Andatzabea*, Legazpi, Aiztondo*, Erreterria, Ataun, Zegama, Gabiria, Segura, Bozue*, Areria*, Ainsuberreluz*, Gatzaga, Aizpuru*, Pasaia, Astigarraga, Olabide zubia*, Elduaien, Oria aldea*, Urretxu, Getaria, Lizartza, Beasain, Villabona, Zumaia, Aia, Soraluze, Artamalastegi*, Ordizia eta Eibar.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak gure lurraldearen erakunde parlamentario historikoa dira, euskal foru sistemaren adierazpenik zaharrenetako eta esanguratsuenetako bat. XIV. mendetik aurrera, Gipuzkoako hiribilduetako prokuradoreak aldizka biltzen ziren, eta Batzar Nagusien egoitza herriz herri txandakatzen zen, lurralde osoaren ahotsa eta borondatea ordezkatzuz. Hain Zuzen ere, Zestoa izan zen batzarrak ospatzen ziren lekuetako bat, eta bankuak egin ondoren bost bilkura egin ziren han: 1759, 1777, 1816, 1840 eta 1860 urteetan, dokumentatu ahal izan denez.

XVIII. mendeko jatorria eta polikromia-geruzak

Ikasketaren ondorio nagusien arabera, bankuek hainbat aldaketa eta konponketa izan dituzte denboran zehar. Artxiboetako dokumentazioak, esaterako,

Konbentzio Gerraren ondoren, 1797 inguruan, bankuetan zenbait konponketa egin behar izan zirela erakusten du, Frantziako armadak altzariaren zati bat sutarako birrindu baitzuen. Ikerketa historiko eta materialak, bestalde, agerian utzi du gaur egun ikus daitezkeen herrien izenak Zestoan ospatu ziren azken Batzar Nagusien ondoren idatzi zirela, hau da, 1860 urte ondoren. Horien azpian ez da beste inskripziorik aurkitu.

Polikromiari dagokionez, lau garaitako pintura-geruzak identifikatu dira. Zaharrena, jatorrizkoa, beltzarana. Bigarren geruzak kolore aberatsagoak ditu, eta XVIII. mendearen amaiera eta XIX. mendearen hasiera bitartean ezarri zen: marmoleztatutako gris eta urdin koloreak eta moldura gorriak zituen.

Hirugarren geruza 1840 eta 1860 artean margotu zen, eta garai horretan errotulatu ziren hiribilduen izenak. Azken geruzak, gaur egun ikusgai dagoenak, XX. mendean zehar egindako hainbat esku-hartzeren emaitza dira.

Ikerketarekin batera, kontserbazioa bermatzeko premiazko esku-hartzeak ere egin dira. Besteak beste, polikromia-geruzak kontsolidatu eta gainazaleko garbiketa-lanak egin dira, altzariaren egoera egonkortzeko.

Dibulgazioa eta esku-hartze berria 2026an

Ikerketaren lehen fasearen emaitzekin batera, Aldundiak bankuaren balio historiko eta ondare-balioa ezagutarazteko lanei jarraipena emango die 2026an. Esku-hartze berezia egingo da bankuaren lehen pintura-geruzetara iristeko eta antzinako polikromia agerian uzteko bankuaren zati batean, testigu gisa. Zehazki, XVIII. mendearen amaiera eta XIX. mendearen hasiera bitarteko marmoleztatutako gris eta urdin koloreak eta moldura gorriak azaleratuko dira.

Esku-hartze horren bidez, garai hartako kolore-konbinazio bereizgarria berreskuratu eta bankuaren jatorrizko itxuraren zati bat erakutsi nahi da, betiere kontserbazio-irizpideak eta altzariaren ondare-balioa errespetatuz.

(*) Iskribatutako izenetako batzuk garai haietako Alkatetza nagusiei dagokie (Areria, Saiaz eta Aiztondo) eta gainerakoak herri-elkarteei dagozkie, Batzar Nagusietan prokuradorea izateko hainbat batasun ala senidetasun osatu baitziren. Gutxi gorabehera egungo udalerri hauek osatuko lituzkete: SAIAZ (Aia, Beizama, Goiatz, Errezil, Bidania, Albiztur), ANDATZABEA (Zizurkil, Orio, Usurbil), ARGISANO (Zumarraga, Gabiria, Ezkio), ARIZTONDO (Asteasu), BOZUE (Ernio eta Aralar inguruak, Amezketa, Abaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta, Baliarrain, Ordizia, Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gaintza, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Zaldibia), ARERIA (Lazkao, Olaberria, Itsaso, Arriaran, Gabiria, Zumarraga eta Ezkio), AINSUBERRELUZ (Alkiza, Anoeta, Ernialde), AIZPURU (Alegia, Ikaztegieta, Orendain, Altzo), OLABIDE ZUBIA (Ibarra eta Belauntza), ORIA ALDEA (Altzaga, Arama, Gaintza, Itsasondo eta Legorreta), ARTAMALASTEGI (Idiazabal, Zaldibia, Beasain)

2026-09-03